

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkurako akta

Ezohiko bilkura

Data: 2017ko uztailaren 19a, asteazkena.

2017ko irailaren 13an eginiko oneste-bilkuran egindako oharra jasotzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako eguneko 20:00etan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate udalburu jauna buru dutela, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJPNV), Idoia Eslava Guillerma (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP) –lan-kontuengatik ezin izango zuela etorri adierazi zuen–, Diana Rubio Lafuente (PP) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion) – lan-kontuengatik ezin izango zuela etorri adierazi zuen–.

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Saioa data honetan egiteko deitu da lanpostuen zerrenda 2017ko irailaren 15a baino lehen egon dadin indarrean.

Saioa alkate-batzordeburuak deitu du aurretiaz, legez dagokion publizitatea eginda, eta honako honen arabera:

Eguneko aztergaien zerrenda

- 1) 2017ko lanpostuen zerrenda aldatzea eta obra eta zerbitzuen arduradunaren lanpostuaren funtzioak.
- 2) San Bizente ikastola Soz. Koop. elkarteari administrazio-emakidaren gainean hipoteka eratzeko adostasuna ematea.

Saioaren eta aztergaien zerrendaren izaera aintzat hartuta, hartutako erabakien eztabaida eta bozketaren berri emango da jarraian.

1. 2017ko lanpostuen zerrenda aldatzea eta obra eta zerbitzuen arduradunaren lanpostuaren funtzioak

Alkateak akordio-proposamena irakurri du eta langile publikoen baldintzen negoziazio-mahaian langileen ordezkariekin adostutako obra eta zerbitzuen arduradunaren lanpostuaren funtzioak azpimarratu ditu.

Gamarra jn.: Ez zait gaizki iruditzen...

Villanueva jn.: Erretiroaren ondorioz, langile taldeak euskaraz hitz egiten duen langile bat galduko du; behin betiko hornikuntzarako euskaradun lanpostuak zehaztu behar dira. Gainera, azpimarratu nahi dut, badakidalako, bi aldeek negoziatzeko borondate ona izan dutela. Langileei buruzko mahaiaren proposamenak eta erabakiak behin-behinekoak dira eta behin betiko erabakiak 2018ko abendurako hartu behar dira. Nolanahi ere, arduradunaren funtzioetako zenbait aguzilaren lanpostuari dagozkio; horregatik, obra eta zerbitzuen koordinatzaile-lanpostuari buruzko dokumentazioa igortzeko eskatu nahi dut. Erne egongo gara prozedurei begira, eta ez dugu araua urratuko...

Aurrekariak:

Pleno del Ayuntamiento; Acta de sesión 19 - VII – 2017;

- 1) 2017 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorrari lotutako lanpostuen zerrenda (2017ko martxoaren 8ko ALHAOn argitaratu zen, 28. zk.)
- 2) Lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena, honako hau dakarrena:
 - a. Lanpostu bat desagertzea:
 - Funtzionarioak
 - Lanpostua: Obra eta zerbitzuen koordinatzailea; egoera: aktibo; Taldea: C; Maila: 22; Hizkuntza-eskakizuna: 2 (beteta); Zk.: 1. EPOEren 76. artikulua eskatutako titulua: Batxilergoa, LH 2. Lanpostuaren kodea: AEOSPSEC222ZZ1. 2017ko urriaren 3an iraungituko da.
 - b. Lanpostu bat sortzea:
 - Langileak.
 - Lanpostua: Obra eta zerbitzuen arduraduna; egoera: hornitzeke; taldea: D; Maila: 18; hizkuntza-eskakizuna: 1 (d.d.g.); EPOEren 76. artikulua eskatutako titulua: ez da eskatzen batxilergoko titulu akademikoa izatea. Lanpostuaren ordainsari-egitura: Soldata (D taldea): 533,96 euro; Lanpostu-mailako osagarria (18): 405,92 euro; Lanpostuaren berariazko osagarria: 1.350 euro; arduraldi-osagarria (% 15): 346,48 euro. Hileko ordainsari gordinak, guztira: 2.656,36 euro.
 - Lanpostuaren kodea: LBOBACSEE181XX1.
 - Erantsitako dokumentuan deskribatutako lanpostuaren funtzioak (espedientean jaso da).
- 3) Hizkuntza Politikako Sailburuordetzaren 2019ko uztailaren 6ko nahitaezko txostena, lanpostuaren hizkuntza-eskakizunari buruzkoa. Agiri horretan ondorioztatzen da ez dagoela oztoporik proposatutako 1. hizkuntza-eskakizunerako.
- 4) IVAPen Hautaketa Zerbitzuaren 2017ko uztailaren 13ko txostena.
- 5) Zailtasun teknikoa, dedikazioa, bateraezintasuna, ardura, arriskua eta nekagarritasuna aintzat hartuta, lanpostu batzuen ezaugarri bereziak saritzeko helburua du berariazko osagarriak. Berariazko osagarria ezartzeko, aldeztu aurretik, Udaltzaren lanpostua baloratu beharko du, zailtasun teknikoari, arduraldiari eta abarri buruz adierazitako baldintzak aintzat hartuta.
- 6) Langile publikoen baldintzen negoziazio-mahaiaren bilera, 2017ko uztailaren 4koa.
- 7) Honako hauek aplikatu behar dira: Toki-araubidean indarrean dauden lege-xedapenen testu bateratuaren 127. artikulua; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 56. artikulua; Toki Administrazioako funtzionarioen ordainsari-araubidea ezartzen duen apirilaren 25eko 861/1986 Errege Dekretuaren 4. artikulua.
- 8) Alkateak eginiko proposamena.

Hau adostu da:

1. Hasiera batean onartzea 2017 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorrari lotutako lanpostuen zerrenda, obra eta zerbitzuen arduradunaren lanpostu bat sortzen duena; egoera: hornitzeke; taldea: D; Maila: 18; hizkuntza-eskakizuna: 1 (d.d.g.); EPOEren 76. artikulua eskatutako titulua: ez da eskatzen batxilergoko titulu akademikoa izatea. Lanpostuaren ordainsari-egitura: Soldata (D taldea): 533,96 euro; Lanpostu-mailako osagarria (18): 405,92 euro; Lanpostuaren osagarri espezifikoa: 1.350 euro; Arduraldi-osagarria (% 15): 346,48 euro. Hileko ordainsari gordinak, guztira: 2.656,36 euro. Lanpostuaren kodea: LBOBACSEE181XX1.
2. Espedientea jendaurrean jartzea Arabako lurralde historikoko toki-erakundearen aurrekontuei buruzko Arauan (3/2004 Araua, otsailaren 9koa) ezarritako epeetan.

3. Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioei igortzea, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 56. artikuluan ezarritakoa betez.
4. Behin-behineko onespeneko erabaki hau behin betikotzat hartzea, alegaziorik aurkezten ez bada. Alegaziorik egiten bada, hilabeteko (1) epean ebaztea.
5. Behin betiko argitaratzea eta espedientearen berri ematea Arabako Foru Aldundiari.
6. Behin betiko onartutako lanpostuen zerrendaren aldaketa Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioei igortzea hogeita hamar eguneko epean.

Aldeko botoak: 6 (sei): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJPNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

2. San Bizente ikastola Soz. Koop. elkarteari administrazio-emakidaren gainean hipoteka eratzeko adostasuna ematea.

Alkate jn.: Akordio hau izapide hutsa da, Udalak onartu zuelako administrazio-emakidaren akordioa.

Gamarra jauna.: Ez dugu eragozpenik.

Villanueva jauna.: Proposamenarekin ados gaude, ikastolak obrak finantzatu ahal izan ditzan...

Aurrekariak:

- 1) Oiongo Kutxabankeko bulegoaren arduradunarekin ahozko komunikazioa, 2017ko uztailaren 13an eginikoa. Komunikazio horretan jakinarazten da San Bizente ikastola Soz. Koop. hipoteka-bermedun mailegu bat (zenbatekoa: 300.000 euro) negoziatzen ari dela Kutxabank banku-erakundearekin, Oiongo 9.445 zenbakiko erregistro-finkan obrak egiteko. Erreferentzia: 852667363-2.
- 2) Maileguaren berme gisa finka hipotekatu nahi da, Oiongo (Araba) 9.445 zenbakiko finkaren gaineko administrazio-emakida gisa deskribatzen dena. Guardiako (Araba) 1. Jabetza Erregistroan dago inskribatuta: 1211 liburukia, 106 liburua, 210 orria. Deskribapena: IDUFIR: 01002001292599. Hiritarra. Foru kale 5 helbideko hiri-lursaila; azalera, guztira: 3.096,84 metro karratu. Mugak: iparraldean, Oiongo (Araba) Udalaren 326 katastro-lursaila; hegoaldean, Foru kalea; ekialdean, Oiongo (Araba) Udalaren 326 katastro-lursaila; mendebaldean: Jesús Zabala Echezarreta jaunaren 317 lursaila eta Rachid Chelagmi jaunaren eta beste batzuen 357 lursaila. Katastroko erreferentzia: 1. poligonoa, 324. lursaila, 1. eraikina, 1. unitatea, 2. eraikina, 1. eta 2. unitatea, eta 3. eraikina, 1. unitatea. Lursailaren azalera, guztira: 3.096,84 metro karratu. Lursailaren azalera okupatua: 2.043,34 metro karratu. Lursailaren azalera librea: 1.053,50 metro karratu. Erregistro-titularra: Oiongo Udala (Araba), jabetza osoaren % 100ean; San Bizente ikastola Soz. Koop., finka horren erabilera pribatiboa egiteko administrazioko emakida demanialaren % 100.
- 3) Enkante-ondoretarako, zuzeneko hipoteka-prozedurarako, hipotekatuaren balioa 780.075,00 euroko zenbatekoan adierazi da, Servicios vascos de tasaciones SA (servatas) erakundeak gauzatutako tasazio-azterketetan ziurtatutako egungo balioa (higiezinak eta finantza-xede jakin batzuetarako eskubide jakin batzuk baloratzeko indarrean dagoen araudiaren arabera). Enpresa hori Espainiako Bankuaren Tasazio Erakundearen Erregistro Ofizialean inskribatuta dago (4.307 zk.). Zenbatekoa partzialki txikitu da, aurretiko edo/eta elkartutako kargak daudela eta.

- 4) Hezkuntza-erabilerarako udal-jabetzako lursailaren erabilera pribatiborako emakida demanialeko administrazio-kontratuaren (2011ko apirilaren 11koa) 9. klausulako (Emakidadunaren eskubideak) 4. atalean hau adierazten da: Bereziki, emakidaren titularrak hipoteka eratu ahal izango du emakida demanialaren xede den "Carmesí etxearen lursailean" edo, betiere, Oiongo lurretako beste batzuetan hezkuntza-jarduera gauzatzeko beharrezkotzat jotako instalazioak eraikitzea finantzatzeko sina ditzakeen maileguen hipoteka-berme gisa. Nolanahi ere, hipoteka ezingo da luzatu emakida demanialaren amaiera-datatik harago.
- 5) Alkatetzak eginiko proposamena.

Hau adostu da:

- 1) San Bizente ikastola Soz. Koop. baimentzea, administrazio-emakidaren titular gisa, hipoteka-bermea eratzeko Kutxabankekin eginiko 852667363-2 zenbakiko mailegurako (zenbatekoa: 300.000 euro), Oiongo (Araba) 9.445 zenbakiko erregistro-lursailean obrak egiteko. Lursaila Guardiako (Araba) 1. Jabetza Erregistroan dago inskribatuta: 1211. liburukia, 106. liburua, 210. orria (Oion).

Aldeko botoak: 6 (sei): Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJPNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Manuel Gamarra López- Brea (PSE-EE-PSOE).

Jorratzeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 20:36an (bilkura 20:00etan hasi da), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oion, 2017ko abuztuaren 14an.

Udaleko idazkaria:

Batzordeburuak ontzat emana